

Gudari Eguna 2018

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA. ::

27/09/2018

Este 27 de septiembre se cumplen 43 años de los últimos fusilamientos ordenados por Franco.

[Euskara]

Irailaren 27 honetan 43 urte betetzen dira Francok bere azken fusilamentuak agindu zituenetik. Orduan, Jon Paredes Manot "Txiki" eta Anjel Otaegi Etxeberria ETako militanteak erail zituzten Euskal Herriarentzako independentzia eta sozialismoa irabazteko borroka egiteagatik. Beraiekin batera, Xosé Humberto Baena Alonso, José Luis Sanchez Bravo eta Ramón García Sanz FRAPeke militanteak ere fusilatu zituzten komunismoaren alde aritzeagatik.

Frankismo ofizialaren azken erailak izan ziren hauek. Alabaina, gaur egunera arte ezarri diguten frankismoaren suzedaneo honek borrokan eroritako beste ehunka gudari bidetik galtzea eragin digu. Batzuek eskuak botatzen dituzte burura beraiek "demokrazia" deitzen dioten honi guk faxismo deitzen diogunean, baina Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Delegazioak, Ahaztuak memoria historikorako taldeak bost borrokalari hauek gogorarazteko deitutako kontzentrazioa debekatu izanak, argitasunez erakusten digu orain 43 urte agintzen zuten botere faktikoak eta gaur agintzen dutenak berberak direla.

Esan bezala, PSOEn debeku honek erakusten digu edukitzailearen itxura aldatu den arren, edukiak berbera izaten jarraitzen duela, eta ustez ezkerrekoak ziren alderdi politikoek frankismoarekin benetan paktatu zutena, dena aldatzea ezer ez aldatzeko izan zela.

Sarritan azaltzen digute frankismo garaian borrokatu zirenen jarrera zilegi izan zitekeen arren, frankismoaren ondorengo iruzurrari aurre egin ziotenak terrorista hutsak izan zirela. Orduko gudarien aldeko ekimenak zein gaur egunekoek berdin-berdin jazartzen dituzte, ordea, atzo, gaurko eta biharko gudariak jatorri eta helmuga berbera izan zutela eta dutela agerian utziz.

Borrokan eroritakoak eskuzabaltasunaren eredurik handiena dira preso, iheslari eta deportatu politikoekin batera. Dena ezer ezaren truke eman dutenen eredua dira, sistema honek bultzatzen duen indibidualismo eta elkartasun ezaren antagonismoa. Kapitalismoaren enpresa handien komunikabideek hedatzen duten zabor ideologikoaren aurrean, gudarien baloreek izan behar dute euskal gazteriaren erreferente nagusia. Izan zirelako gara, garelako izango dira. Agur eta ohore, eusko gudariak!

Euskal Herria, 2018ko irailaren 27a.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

[Castellano]

Este 27 de septiembre se cumplen 43 años de los últimos fusilamientos ordenados por Franco. Entonces, asesinaron a Jon Paredes Manot “Txiki” y a Anjel Otaegi Etxeberria por luchar para conseguir la independencia y el socialismo para Euskal Herria. Junto a ellos, también fusilaron por trabajar a favor del comunismo a los militantes del FRAP Xoxé Humberto Baena Alonso, José Luis Sánchez Bravo y Ramón García Sanz.

Estos fueron los últimos asesinados por el franquismo oficial. Sin embargo, este suceso del franquismo que nos han impuesto hasta hoy, nos ha generado perder en el camino a otros cientos de gudaris. Algunxs se echan las manos a la cabeza cuando a eso que ellxs llaman “democracia” nosotrxs lo llamamos fascismo, pero el hecho de que la Delegación que el Gobierno español tiene en Nafarroa haya prohibido el acto convocado por el colectivo para la memoria histórica Ahaztuak con el fin de recordar a estos cinco luchadores, nos demuestra con claridad que los poderes fácticos que mandaban hace 43 años son los mismos que los que mandan hoy.

Como hemos dicho, esta prohibición del PSOE demuestra que aunque ha cambiado el continente, el contenido sigue siendo el mismo, que lo que los supuestos partidos de izquierda realmente pactaron con el franquismo fue cambiarlo todo para que no cambiara nada.

A menudo nos explican que aunque la postura de quienes lucharon en la época del franquismo pudo ser legítima, lxs que hicieron frente al posterior fraude fueron unos meros terroristas. En cambio, persiguen de igual modo los actos por lxs gudaris de entonces que los que se hacen por lxs de ahora, dejando ver que el origen y el destino de lxs gudaris de ayer, de hoy y de mañana son los mismos.

Lxs caídxs en la lucha son el mayor exponente de generosidad junto con lxs presxs, los deportados y lxs huídxs políticxs. Son ejemplo de haberlo dado todo a cambio de nada, el antagonismo del individualismo y la insolidaridad impulsada por este sistema. Ante la basura ideológica expandida por los medios de comunicación de las grandes empresas del capitalismo, los valores de lxs gudaris deben ser el referente principal de la juventud vasca. Porque fueron somos, porque somos serán. Agur eta ohore, eusko gudariak!

En Euskal Herria, a 27 de septiembre de 2018.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://eh.lahaine.org/gudari-eguna-2018>